

# BESTELAKO XEDAPENAK

## SEGURTASUN SAILA

### 3759

*EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 1ekoa, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria-rena, hemen zehazten den establezimenduaren kanpoko larrialdi plana jendaurrean jartzeko dena: Gases Oxinorte A.I.E. (Barakaldon kokatua).*

Istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartu zituen 840/2015 Errege Dekretuaren 16. artikuluan, eta istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten Autonomia Erkidegoko organoak zeintzuk diren zehaztu zuen otsailaren 20ko 34/2001 Dekretuaren 3. artikuluko f) eta k) letretan ezarritakoa betetzeko, gai arriskutsuak dituzten enpresen kanpoko larrialdi planak jendaurrean jarri behar dira, baldin eta gai arriskutsu horien kantitatea 840/2015 Errege Dekretuaren I. eranskineko 1. eta 2. zatiko 3. zutabean zehaztutakoa edo handiagoa bada.

Industrialariak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bidez bidali dituen agiriei erantzunez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, beste era-kunde eta administrazio-zerbitzu batzuekin batera, enpresa honen kanpoko larrialdi plana egin du: Gases Oxinorte A.I.E. (Barakaldon kokatua). Plan hori jendaurrean jarri behar da 20 egun baliodunez.

Horregatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat etorritz, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gases Oxinorte A.I.E. (Barakaldon kokatua) enpresaren kanpoko larrialdi plana jendaurrean jartzea, beharrezko jotzen diren alegazioak aurkez daitezten. Ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 20 egun baliodunez egongo da jendaurrean plana.

Aurreko artikuluan aurreikusitakoa bete ahal izan dadin, kanpoko larrialdi plana Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (La Torre eraikina, Forondako Atea 41, Vitoria-Gasteiz). Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri.

Bigarrena.– Alegazioak aipatutako epe horren barruan bideratu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzara (La Torre eraikina, Forondako atea 41, 01010 Vitoria-Gasteiz); sail horretako erregistro orokorrean aurkeztuko dira, edo bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako moduetako edozein erabili ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 1a.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria,  
RICARDO ITUARTE AZPIAZU.